



# HAMABOST ZAURI

## 1. Atala: STOP

1. Atalaren izenburua, **STOP**, zeri egindako stop-a da zuen ustez? Azaldu zergatik.

A. Stop alferrik eztabaidatzeari, izan ere,...

B. Stop maitasunari, izan ere,...

C. Stop Gabonetan familiaren afarrietara joateari, izan ere,...

2. Haserretzen garenean zer keinuk edo ezaugarrik erakusten du gure umore txarra?

A. Kopeta zimurtu                      E. Sorbaldak jaso

B. Muturra okertu                      F. Burua makurtu

C. Belarriak mugitu                    G. Ahotsa goratu

D. Sudurra garbitu                    H. Ukabilak bildu



### 3. Atalaren inguruko ariketa (9-14.orr)

#### Aukera ezazu erantzun egokia:

Hurrengo bi bihurguneak isilpean \_\_\_1\_\_\_ dituzte. Isilpean daude baina buruan zarata dute biek. Barne zarata isilarazteko ahalegina egin du emakumeak musika zinta bat atera eta kasetean \_\_\_2\_\_\_. Musikak piztia baretuko duen itzaropena \_\_\_3\_\_\_, gizonak eztabaida ahazteko ahalegina egin du, \_\_\_4\_\_\_ emakumearen azken hitzen zorroztasunak bide garratz bat \_\_\_5\_\_\_ dio eztarritik behera. Autoaren argiek errepidearen iluntasunean bidea irekitzen duten bezala, hala dabil garratzasuna bere samatik behera. \_\_\_6\_\_\_ baina aurrera, bidea irekiz. \_\_\_7\_\_\_, ia ahaleginik egin gabe eta ia oharkabea, hitz batzuk atera zaizkio ahotik. Labain egin dute hitzek bere burutik ahora, eta bere ahotik autoaren atmosfera \_\_\_8\_\_\_.

<b>1</b>	Makurtu	<b>2</b>	Sartzean	<b>3</b>	Galdu barik	<b>4</b>	Halaber
	Igaro		Sartzearekin		Galduko		Aitzitik
	Zeharkatu		Sartuz		Galdutako		Era berean
	Eraman		Sartzen		Galduak		Laburbilduz
<b>5</b>	Zapaldu	<b>6</b>	Barra-barra	<b>7</b>	Orduan	<b>8</b>	Kondentsatutara
	Ireki		Plisti-plasta		Artean		Kondentsatura
	Aukeratu		Mara-mara		Aurrerantzean		Kondentsatu
	Irakin		Poliki-poliki		Antzina		Kondentsatuko



#### **4.A.Honako hau izan daiteke emakumearen barne-bakarrizketa:**

" Nazkatuta nago beti haren amaren etxera joateaz. Gainera, badauka beste seme bat eta errain bat, baina horiek hurbildu ere ez zaizkio egiten. Beti geu. Eta gainera andrea ez da batere esker onekoa, nirekin behintzat, ez. Ezezaguna banintz bezala hartzen nau haren etxera azaltzen naizen bakoitzean. Bada, akabo fandangoa! Ez, ez dut etsiko. Aurrekoa izan zen azkena. Aurtengo Gabonetan lasai egon nahi dut, etxean, inork agindu gogaikarriak ematen ez dizkidala. Eta horretarako aste bete egon behar badugu muturra okertuta, bada egongo gara, edo hilabete, edo..."

#### **4. B. Honako hau izan daiteke gizonaren barne-bakarrizketa:**

**5. Zuen ustez, zergatik aldatu dira senar-emazteen jarrerak kontrolean gelditu eta gero?**



**6. Desamodioaren gaia hartuta eskema bat egingo dugu. Osatu eskemak falta dituen kontzeptuak. Hurrengo pausoa horrekin idazlan bat egitea izango da.**

## **DESAMODIOA**

### **A.Sarrera (hiru aukeratatik bat)**

**1.Desamodio pasadizo bat:**

**2.Datu-estatistikoa:** gurean bikoteen erdia banatzen da hiru urte baino lehen.

**3.Alderaketa:** gure aitita-amamen garaian...

**B.Tesia:** maitasuna iraungitze-data daukan erreakzio kimiko bat baino ez da.

### **C.Desamodioaren kausak:**

- Familia politikoarekin izandako gorabeherak.

- 
- 
- 
- 
- 

### **D.Desamodioaren ondorioak:**

- Bikotekidearen akatsak ikusten hastea.

- Bikotekidea ikustea saihestu nahi izatea.

- 
- 
- 
- 
-



**YLIBARRI**  
EYSKALTEGIA

Edizioa:  
Ber.:  
Orria:5-1



BIKAIN TASUNAREKIN KONPROMISOA  
COMPROMISO CON LA EXCELENCIA  
EUSKALIT



-

### E. konponbideak:

- Bikotean noizean behin amore eman behar da, baina ez beti alde berak.

-

-

-

### F. Iritzia eta iragarpena (hiru aukera):

A. Gero eta banaketa eta dibortzio gehiago egongo da.

B. Berdin jarraituko dugu.

C. Gero eta banaketa eta dibortzio gutxiago izango da zeren...